



Elena Bernaras

Ikasleen errektoreordea

Unibertsitateko Ikasleen Estatutu Berria

Berrikitan onartu ditu UPV/EHUK bere Estatutuak, baita Estatuak Ikasleen Estatutua ere. Horrek ekarri du errotiko aldaketa ikasleek unibertsitatean duten egoeran. Errealitate horren aurrean Euskal Herriko Unibertsitateak ikasleen eskubide eta betebeharrak zabaltzeari ekin dio, onuradunek ez ezik unibertsitateko kide guztiok ere ezagut ditzagun, denok lotesten baikaitu.

Unibertsitateko Ikasleen Estatutu berria sortu da, eta ikasleek unibertsitate-politikaren diseinuan parte hartzeko baliabide bat izango da. Estatutuak ikasle guztientzako eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu. Ikaslea subjektu aktibo izango da, bereziki, hiru arlo hauetan: ikaskuntzako eta irakaskuntzako prozesuan, unibertsitateen gobernamenduan eta kalitatezko prestakuntza integrala eta arreta jasotzeko eskubidean.

Ikaskuntza-prozesuari dagokionez, Estatutuak eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu. Eskubideen artean, aipagarrienak hauek dira: unibertsitateari sartu aurretiko orientazioa, tutoretza pertsonalizatuak eta laneratzeari buruzko informazioa; irakaskuntza-kalitatearen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan esku-hartzea; bekak nahiz laguntzak eta mugikortasun programak; ebaluazio objektiboa eta, ahal den guztietan, jarraitua; lanen egiletasunaren aitorpena; ikasketen, lanaren eta familiaren arteko bateragarritasuna eta arduraldi partzialen ari diren ikasleen aitorpena; eta, azkenik, aukera berdintasuna ezgaitasunen bat duten ikasleentzat. Mugikortasunaren inguruan, graduako masterreko eta doktoregoko ikasleen mugikortasuna arautzen du eta

aitorpen akademikoa ematen dio. Hala, mugikortasunerako laguntzak eta bekak ematea agintzen du; mugikortasun-programa espezifikoak aurreikusten ditu gradu nahiz master amaierako lanak eta kanpo-praktikak egiteko eta urritasunen bat duten ikasleak nazio nahiz nazioarteko programetan parte hartzea kontuan hartzen du.

Ikaskuntza-prozesuarekin jarraituz, eta tutoretzei dagokienean, Estatutuak bi tutoretza mota bereizten eta sustatzen ditu: tituluko tutoretzak eta irakasgaiko tutoretzak. Tituluko tutoretzen helburuak dira, hain zuzen ere, ikasleak unibertsitateko ingurunerako egoitzea, prestakuntzako baliabideak eskaintzea eta lanerako trantsizioak arduratzea. Irakasgaiko tutoretzen helburua, berriz, ikaskuntza-prozesu osoan, ikasleek banakako laguntza eta orientazioa jasotzea da.

Bestalde, Estatutuan esaten da **irakaskuntza-programan** zehaztu egin behar direla titulazioen helburuak, emaitzak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-sistemak eta Unibertsitateak alderdi horien guztien berri eman beharko duela. Eta kalitatea bermatzeko, kanpo-praktika akademikoak, bai curriculumekoak bai curriculumaz kanpokoak, tutoretzapekoak izango dira. Ebaluazioaz ere aipamen berezia egiten da. Lehen esan dugu, ebaluazioak objektiboa eta ahal den neurrian jarraitua izan beharko duela, baina horretaz gain Estatutuak kalitatea bermatzeko aldera, ebaluazio-epaimahaietara joateko, azterketak berrikusteko eta organo eskudinetan erreklamazioak egiteko eskubideak azpimarratzen ditu.

Ikasleak ere parte aktiboa izan behar du Unibertsitateko **Gobernamenduan**. Unibertsitateko gobernu-organoen bidez, ikasleek beraien eragina duten erabakietan parte har dezatela sustatu nahi du Estatutuak. Ikasleen ordezkarien eskubide eta betebeharrak banan-banan aipatzen ditu eta ikasleak elkartzera animatzen ditu. Hatsarre hau ere ezartzen du: ikasle batek berak ere ez diezaiola unibertsitateari uko egin arrazoi ekonomikoak direla medio.

Atal honetan, arau honen eduki bat azpimarratu nahi nuke: Estatuko Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluaren sorrera non ikasleen batzorde autonomikoetako ordezkariak izango diren. Kontseilu honen bidez, ikasleek ikasteko beka eta laguntzen programen diseinuan parte hartuko dute. Baita ere, Hezkuntza Ministerioaren aurrean erabakiak hartzeko, kontsultak egiteko eta parte hartzeko edukiko duten tresna izango da.

Azkenik, ikasleek **kalitatezko prestakuntza integrala eta arreta jasotzeko** eskubidea dute eta horretan ere subjektu aktibo gisa parte hartu behar dute. Atal honetan Estatutuak honako gai hauek aipatzen ditu: unibertsitateak sustatzen dituen balioen presentzia bermatzeko baldintzak eduki behar ditu, kirol-jarduerak prestakuntza integraleko osagai gisa aitortu behar du, arreta-zerbitzuak eskaini behar ditu eta ikasle ohien elkartearen sorrera sustatu beharko du.

Informazio gehiago:
www.ikasleak.ehu.es